# Poemategi ederren uzta



Asko izan dira joan den urtearen hondarretik hona poesiaren arloan agertu diren lan berriak. Ekoizpen eder baten aurrean gaude, udaberriaren etorrerak ere beste lan batzuk ekarri baititu.

Azken asteetan argia ikusi duen poemario bat *Hezur berriak* da, Ane Labaka Mayoz idazleak plazaratu duena: Susa argitale txeak honela bernizatu zuen lana: "Amapola hazi batetik, haragizko erauntsi bat. Zorionak, idatzi zidan, jakin dut hezur berriak dauzkazula". Jendaurrean mutututako gorputz dardaratu batean, zirriborro-lanbro batekin dabil hara-hona poemotako ahotsa, idazten lagunen ahotsmezuak entzun ahala, idazten loezinean dela. Nola egiten dute besteek? Ama idazleak, ama lagunak, ama fakirrak. Ospitale hotz batean barruratutako hatzak eta barruratutako hitzak, dena normal, itsas-aurreko anbibalentzia, erruak, damuak. Jaioberri baten arnasa etxekotu bezpera eta harekin heldutako argi-itzala bildu ditu Ane Labaka Mayozek bere lehen poema liburuan.

Ane Labaka bertsolari eta idazleak bere haurdunaldiaren inguruko sentipenetan arakatu du, eta poema-liburua osatu du. Lanak hiru parte ditu. Hasieran lau poema datoz. Agian nora eza edota zalantzak adierazten dituztenak: "Zirriborro lanbro bat daukat burmuinean…". Horren ostean, *Aurrea* atala dator, idazleak sabelean hazten ari den ume horrek sortzen dizkion sentsazioen berri ematen du. "Amapola hazi baten tamaina zuela leitu genuen". Eta gero *Ondoa* atala osatzen duten poemak datoz, hain zuzen ere, erditu osteko sasoian izkiriaturikoak.

Adibide eder bat hau:

*"Hurreratu naiz mantapean*
*harik eta bi-bion aurpegiak*
*parez pare izan arte*
*eta, hara non, bete zaizkizun*
*masailak bizitzaz.*

*Bare urratu duzu egunsentia.*

*Diotenez,*
*hasierako irriak bi motatakoak izan daitezke:*
*erreflexuzkoak edo sozialak.*

*Utzidazu nahita egin duzula*
*pentsatzen".*

Elkarrizketa batean esan zuen ez dela amatasunaren inguruko lan bat baina bai bere ertzei ahalik eta egokien heltzeko ahalegin bat, eta horrexegatik, beldurraz, indarkeriaz, erruaz, presio sozialez, pozaz, eta nekeaz ere aritu izan da kontakizun poetikoa sortzeko.

Titulua ere bada polita: *Hezur berriak*. Euskal Herriko hainbat tokitan haurdunaldiari erreferentzia egiteko erabiltzen da: "Exur berri badin emazteki korrek; Azur barrietan dago; edo Exur berrik dauzkat. Laixter amona izango zera".

Hasierako orrialdean bi zita ederrez hornitu du liburua.

Bat Adrienne Rich poetarena:

*"Niretzat, ordea, inoren ama izan gabe/ bizi nintzen lekua zen poesia/ neure gisa existitzen nintzen lekua".*

Udaberriaren inguruan ere, Amaia Iturbidek *Profilak (Mugetan barrena)* izeneko lana plazaratu du Erein argitaletxearekin. Poesian ibilbide luzeko idazlea dugu Amaia Iturbide: *Eskaileraren bi aldeetan* (1986, Erein); *Itzulbidea* (1992, Erein); *Gelak eta zelaiak* (1994, Erein); *Lore mutuak eta tuaren ezkontzak* (2006, Centro de Lingüística Aplicada Atenea); *Eszenatokietako aztarnak hasten direnean* (2011, Erein); *Dorrearen eta penduluaren arteko ituna* (2016, Erein); *Isiltasunaren ildoetan* (2021, Erein), eta azken hau.

Mugak eta profilak dira ardatz lan horretan: "*Profil* hitz polisemikoa albotik ikusitako gorputzaz edota pertsona zein pertsonaia baten ezaugarriez aritzeaz




gain, arte, teknologia eta geometriari, gizarte zein hizkuntza gaiei lotuta dago. *Muga* hitzari dagokionez, poema liburu honetan denetariko mugak (mugarriak, mugaldeak, zerumugak, lerroak) eta mugako egoerak agertzen dira. Bestaldetik, muga kontzeptu filosofiko konplexu horietariko bat dugu, artea ulertzeko ezinbestekoa". Autoreak bere lanaren nondik norakoak azaltzerakoan esan zuen liburu hau gonbidapen bat dela poesia erresistentzia espazio bezala bizitzeko. Erresistentziaren mugak edota mugaren erresistentziak:

*"Nire gauzen inbentarioa hauxe da: pentsamendu soilak kulunkatzeko hamaka adimen artifiziala garatzeko ordenagailuko egitaraua eta gelako mahai eraisgarria.*

*Horrela ixten dut katalogoa horrela zabaltzen bizitza".*

Garai berekoa da Leire Ugadi gazteak kaleraturiko bere lehen




lana: Simulakro bat (Elkar) Lanak hainbat atal ditu: *Eszenatokia*, *Jarraibideak*, *Distrakzioak*, *Alarma* eta *Forja*. Baina liburuaren hasiera beste poema bat dator Asmo Adierazpena izenekoa. Xabier Mendiguren editoreak esan zuen bezala, Arestiri eginiko omenaldi bat da, tartean, honelako lerroak dakartzala:

*… ni ez nintzen poeta ofizioan sartu/ zuhurtasunez idazteko/ segurtasunez bizitzeko/ zahartasunez hiltzeko (…) sartu nintzen/ ez ofizio ez bizio dudan /egintza xume honetan/ zeinak ez jatekorik ez ihesbiderik emango ez didan/ baina ni ez naiz harrizkoa eta/ ezinbestan/ mailuak forjatzen nabil paperean.*

Ia poema guztietan sentitzen da erritmo berezia, irakurketarako kadentzia probokatu bat, zeinak doinu ederrez hornitzen dituen lerroak. Freskotasunez beterik datorren lan hau gustura irakurtzen da. Aipaturiko lan hauen aurretik, beste batzuek ere argia ikusi dute. Adibidez, Elena Sánchez idazlearen *Epilogorik gabe* lana (Bilboko Udalak eratzen duen Blas de Otero-Ángela Figuera Poesia Saria 2023an) joan den urtearen hondarretan argia ikusi zuena. Idazleak hauxe zioen bere lanaz: "Beti liluratu nau bere poesiaz teorizatzen duen jendeak. Niri kostatu egiten zait, poesia berez sortzen dela iruditzen zaidalako. Hala ere, modu batean edo bestean definitu beharko banu poema liburu hau, desilusio eta aldi berean erresistentziaren poetikaz hitz egin beharko nuke. Desesperantzatik, desenkantutik sortutako bilduma da".

Garai hartakoak ere badira aipatu beharreko hauek: Rakel Pardoren *Egurats zabaletako izendaezinak*, eta Maddi Sarasua Laskariren *Biharraren hegietan izenekoak*, biak Maiatz argitaletxeak kaleratuak. Iosune de Goñi Garcíak *Ahizpa beltza* poema-liburua kaleratu zuen sasoi berean, gutxi gorabehera. Liburu hau finalista izan zen 2024ko DK Poesia Sarian, eta Balea argitaletxeak kaleratu egin zuen. Azkenik, aipatuko dugu Beatriz Chivitek kaleraturiko *Oroi garen oro* (Pamiela) eta horren aurrean Leire Vargas durangarrak kaleratu zuen *Bihotz-museo bat* (2024, Elkar).

Uzta galanta!

**Juanra Madariaga**